



2009KO UZTAILAREN 30EKO
OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta bederatziko uztailaren hogeita hamarrean, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Patxi Albisu Estensoro Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Felix Urkola Iriarte, M^a Lourdes Garmendia Guerra, Xabier Arrasate Aierbe, Inazio Estensoro Eskisabel, Inazio Barandiaran Aldasoro, Juan Manuel Serna Portugal, Ángel Hernández Marzal, Ricardo Crespo Rubio, Iñaki Saldaña Herrero eta Javier Moreno González de Lara.

Amagoia Naldaiz Mingo eta Xanet Barreras Jauregi zinegotziak ez dira bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

Alkateak, bilkurari hasiera eman eta esaten du gaur arratsaldean izandako gertakizunak direla eta, mozioa aurkeztu nahi duela eta beraz eta eguneko gai zerrendatik kanpo presazko izaeraz mozio osoko bilkuran sartzea proposatzen duela.

Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, ontzat ematen du alkatearen proposamena.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du mozioaz gain gaur izan diren bi biktimen omenezko minutu bateko isilunea egitea proposatzen duela.

Alkateak erantzuten dio bilkura amaieran egingo dela.

Jarraian, esaten du alkateak, Iñaki Saldaña zinegotziak Osoko Bilkurari zerbait esateko daukala eta hitza ematen dio.

Iñaki Saldaña zinegotziak esaten du Osoko Bilkurari jakinarazten diola aurrerantzean bere alderdiak alternatiba izena izango duela eta alderdi aldatze honen zergatien azalpena egiten du.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

I.- AURREKO AKTA.-

Jarraian, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2009ko ekainaren 25ean egindako bilkurako akta.

Crespo zinegotziak (PSE-EE) esaten du VI. puntuan berak "behin kontentziosora joanik, gero epaia edozein dela ere, hitzarmenik ez eskeintzeko inondik inora ere" esandakoari alkateak baietz hori horrela izango zela erantzun ziola eta hori ez dela jasotzen.

...///...

Salbuespen hau egin ondoren eta guztien adostasunarekin, gainontzean, akta idatzita dagoen moduan onartzen da.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatetzako Ebazpenen berri ematen du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

III.- HAURTZAINDEGI BERRIAREN ERAIKUNTZAREN 8. OBRA EGIAZTAGIRIA.-

San Prudentzio Ikastetxearen aldamenean eraikitzen ari den Haurtzaindegia eraikuntza lanen obra zuzendaritza daramaten udal arkitektoek lanen 8. obra-egiaztagiria luzatu dute. Zortzigarren obra-egiaztagiri honen zenbatekoa HIRUREHUN ETA BERROGEITA SEI MILA ZAZPIEHUN ETA HOGEITA ZORTZI EURO eta LAUROGEITA HAMALAU ZENTIMotakoa (346.728,94 €) da. Lan hauek Miguel Imaz, S.A. enpresa ari da burutzen.

Udal teknikariak obra-egiaztagiri hau aztertu eta bere oniritzia eman dio.

Serna zinegotziak (PSE-EE) obra aurrikusi moduan dihoan galdetzen du

Alkateak erantzuten dio obra-egiaztagiri honetan jasotzen diren desbiderapenak, hasiera batean sartu zirenak direla, horma eta abar, eta egon daitezkeen gainontzekoak sartu diren hobekuntzen ondorioz eta batzordean azalduta daudenak likidazioan jasoko direla.

Honen aurrean, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, Haurtzaindegia eraikuntza lanen zortzigarren obra-egiaztagiria onartzea erabakitzen du.

IV.- ESTALI GABEKO IGERILEKUEN ERAIKUNTZAREN 2. OBRA EGIAZTAGIRIA.-

Joxemiel Barandiaran Udal Kiroldegiaren aldamenean eraikitzen ari diren Estali Gabeko Igerilekuak lanen obra zuzendaritza daramaten LKS Ingeniería, S. Coop.ko Javier de la Fuente Carazo arkitektoa eta Nerea Mujika Estensoro arkitekto teknikoek lanen 2. obra-egiaztagiria luzatu dute. Bigarren obra egiaztagiriaren zenbatekoa HIRUROGEITA BI MILA BOSTEHUN ETA BERROGEITA BAT EURO eta LAUROGEI ZENTIMotakoa (62.541,80 €) da. Lan hauek Altuna y Uria, S.A. enpresa ari da burutzen.

Udal teknikariak obra-egiaztagiri hau aztertu eta bere oniritzia eman dio.

Alkateak esaten du obra hau oraindik hasi berria dela eta ez dela inolako ezustekorik egon.

Honen aurrean, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, Estali gabeko igerilekuen eraikuntza lanen bigarren obra-egiaztagiria onartzea erabakitzen du.

...///...



...///...

V.- ENIRIO ARALAR MANKOMUNITATEKO PAGADIEN BUELO ESKUBIDEAK ESKU BAKAR BATEAN JARTZEA.-

1821eko azaroaren 22an, Enirio eta Aralar mendietako larre-sariak zatitu eta banatzeko eskritura sinatu zen. Horretarako, eragindako hamabost herrietako hainbat ordezkari eta ahaldu berezi bildu ziren. Eskritura horren bitartez, zuhaiztia banatu egin zen eta hainbat zonalde, lote edo zati bereizi ziren, baso ustiapena Enirio-Aralarko Mankomunitatea osatzen duten hamabost herriek osatutako bi elkarten artean banatzeko.

Baso horiek egurretan duten balioa herrietako loteen artean nola banatzen ziren jakiteko, IKT enpresak 1994an balorazio osoa egin zuen eta bere banaketa, herri desberdinen zatien artean, ondorengo koadroan ikusi daitekeen moduan:

Abaltzisketa	%13,71	Gaintza	%9,60
Amezketza	%17,83	Itsasondo	%1,82
Altzaga	%0,91	Lazkao	%9,38
Arama	%0,91	Légorreta	%5,28
Ataun	%8,25	Ordizia	%5,40
Baliarrain	%3,33	Orendain	%6,66
Beasain	%2,92	Zaldibia	%10,67
Ikaztegieta	%3,33		
		GUZTIRA	%100



Ehuneko horiek Mankomunitatearen Batzarrak eta udaletako plenoek onartu zituzten, Lazkao Udalaren kasua 2002ko martxoaren 21ean egindako batzaraldian.

Batzaraldi horretan zera erabaki zen baita ere, aipatutako IKTren ikerketaren emaitzetan oinarrituz, pagadiari dagozkion zuhaiztiaren gaineko eskubideak soilik Mankomunitatearen eskuetan uztea, udal bakoitzak beren lursailei dagozkien eskubideei uko eginez. Zuhaiztiaren gaineko eskubidea esku bakarrean egonez gero, udalerri bakoitzari % 6,66a legokioke (100/15) eta, horregatik, aurreakordio horren arabera, %6,66tik gorako zuhaiztiaren gaineko eskubidea duten udalerriei aldea ordaindu egingo litzaieke, gainontzekoari uko eginez.

Balio hori, berez, %6,66 baino ehuneko txikiagoa duten udalerriek ordaindu beharko balute ere, pagadi horien kudeaketa bideragarria izan dadin eta zuhaiztiaren gaineko eskubidea esku bakarrean uzteko interes publikoa kontuan izanik, Gipuzkoako Foru Aldundiak akordioa ahalbidetzeko eta lursailak likidatzeko beharrezko aurrekontu zuzkidura gaitzeko konpromisoa hartu du.

Testuinguru horretan, Gipuzkoako Foru Diputazioko Mendietako eta Natura Ingurune-ko Zuzendaritzak IKT enpresari 1994. urtean egindako balorazioa berraztertzeke agindu zion. Horretarako, kontuan hartu dira zuraren merkatuaren egungo egoera eta, baita ere, eremua Aralarko Parke Naturaleko gunen hondaberean dagoelako ustiaketa baldintzak mugatuak direla. Guztira 1.240.010 euroan balioetsi da.

...///...

...///...

Akordio proposamena balorazio horren onarpenean oinarrituko litzateke eta, ondorioz, ondoren zerrendatzen diren udalerriei adierazitako kopuruen ordainketetan:

	%	% -6,66	€
Amezketak	17,83	11,17	138.509
Abaltzisketa	13,71	7,05	87.421
Zaldibia	10,67	4,01	49.724
Lazkao	9,38	2,72	33.728
Gaintza	9,60	2,94	36.456
Ataun	8,25	1,59	19.716
GUZTIRA			365.554

Alkateak esaten du Lazkaoko herriak berari zegokion bueloa saldu egin zuela 1841 urtean, frontoia egiteko dirua lortzearen, eta Diputazioa eta Mankomunitatetik proposatzen dena ondo irudituta ere, Lazkaok aurrena buelo hori berreskuratu egin beharko luke gaur egun buelo horren eskubideen titularrekin hitzegin eta akordio batera iristeko eta ondoren buelo hori Diputazioaren esku uzteko, honek pagadien kudeaketa bateratua egin dezan.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du bueloaren gaur egungo titularrekin negoziatzearen aurka ez daudela baina espero dutela proportzioz kanpoko eskintzarik ez dela egingo.

Guzti honen ondoren, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako akordioak hartzen ditu:

1.- Enirio-Aralarko buelo-eskubideak esku bakar batean jartzeko Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako balioespen proposamena, akordio honen aurrekinetan agertzen dena, onartzea.

2.- Lazkaori dagokion buelo zatia, 1841ean partikularrei saldu zitzaiena, berreskuratzeko kudeaketa egiten hastea.

3.- Enirio-Aralar Mankomunitatearen Batzordeari akordio hauen berri ematea.

VI.- MOZIOA.-

Gaur ETak Calviá-n (Mallorca) egindako atentatu basatiaren aurrean, zeinetan bi guardia zibil hil dituen, eta halaber atzo Burgosen egindako atentatuaren aurrean, Lazkaoko Udalak bere arbuiorik irmoena adierazi nahi dio ETaren indarkeriari eta, azpimarratu nahi du demokraziatik eta bizitzarekiko errespetutik abiatuta soilik lortuko dugula Bakea.

Zentzu horretan, Lazkaoko Udalak Euskal Gizartearen aurrean hurrengoak adierazi nahi du:

1. Lazkaoko Udalaren aburuz edozein herritarren kontra atentatua egiten duenak, euskal gizartearen kontrako atentatua egin du.

...///...



...///...

2. Gure gizartea anitza dela onartzen dutenak, hots, gurea bezalako gizartea aberasten duten aukera politiko, sozial eta kultural guztiak bere osotasunean aintzat hartzen dutenak baino ez dira onartuko demokrazian.
3. Lazkaoko Udalaren iritziz pertsona eta gizarte-erakundeen aurkako edozein atentatu, mehatxu edota gogorkeria jasangaitza da, beraz, gaur goizean Calvián eta atzo Burgo-sen izandako atentatuak gaitzetsi nahi ditu eta familiekiko elkertasuna adierazi.
4. Lazkaoko Udalak gure artean "ETA SOBERAN DAGO"ela berresten du.
5. Lazkaotarrei bihar, uztailak 31, udaletxe aurrean kontzentratzeko deia egiten die. Kontzentrazioa 12:00etatik 12:15era.

Herritarrei, bihar, uztailak 31, arratsaldeko 20:00etan plazan burutuko den "Gesto por la Paz"ek deitutako kontzentrazio isilean parte hartzera deitzea.

Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin mozioa onartzea erabakitzen du.

Jarraian, Osoko Bilkurak minutu bateko isilunea egiten du.

VII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zortziak hogeita bost gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.



100

100

100

